

# Txapelgorritxo

G. Mistral  
Euskaratzailea: O.

Txapelgorritxo, ule kiskur joriduna,  
Onbera dogu beti, aberaska malgu.  
Eta neskatz liraiñak amama nai ikertu,  
Alboko urian geiso txarrez dagoana.

Goiz-argi urratu-ala, oiñari ekiñik.  
Pausu txairo ta ausardiz oian zear doa.  
Bidera urtena yako Otsoko gaiztoa.  
—«Ene Txapelgorritxo, nora zu ain goiztik?»

Lora zuria baizen leiala da neska.  
—«Makal daukat amama: opilla darotsat  
Eta ezti joria lapikoan ainbat.  
Or-ortiko uritxoan, sarreran bizi da».

Alai dabil neskatz, baso usaintsu zear,  
Ale gorriak eten, lora-txortak ondu,  
Ta etoiaren asmuz da osorik aaztu.  
Tximillot batek baitdau zoramindu suar.

Agin zorrotz zuridun Otsoko maltzurak  
Zearka igaran ditu baso, boli, muiño;  
Amamaren atean ots dagi gaiztozko,  
Ta loba dala diño giza-jale tzarrak.

Ez dau iru egunez ezer jan piztiak.  
Amama errukarri!, nok gaur jagongo zu?  
...Algaraz irunsi dau oso ta gordintsu,  
Ta bertatik jarri dauz aren soin-jantziak.

Atz txikitxo zuriak atean dantzatu.  
Oe-gain tximurturi.k, «Nor dogu?» Otsoak.  
Ots latza. «Baiña, amama noiz ilgo gaixoak»,  
Beretzat diño neskak. «Amak nau bialdu».

Barrura da neskatz, pipil-usain dari.  
Sasi-lora kirtanak eskuan dardartzen.  
—«Itxi opilla t'erdu oea berotzen».  
Txapelgorritxo'k amor maitezko deiari.

Or agertu belarri bi andiak txito.  
—«Zergaitik ain luzeak», diño lau neskatzak.  
Eta, ari oraturik. uletsu maltzurak:

—«Zetako ain luzeak? Iri entzuteko...»

Begiak eda yakoz ikusiz gorpuzño.

Neskatxari be dautsoz edatzen izuak.

—«Zergaitik. amamatxo, begi ain andiak?»

—«Ene bioztxo, al bait, i begiratzeko...»

Ta irribar Otso zarrak. Bai ao baltzeko!

Nirñir dagie izukor aren ortz zuriak.

—«Zergaitik, amamatxo. ortzak ain andiak?»

—«Ene bioztxo maite, i obeto irunsteko...»

Estutu dau piztiak, ule lakarpean,

Gorpuzño dardartia, illen zuri antzo

Eio dan aragia, azurrak bere eio,

Geriza lez biotza xautuz ortz artean...